

2017ko martxoaren 23an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak, beste batzuen artean, ondorengoa onartu dau:

ZAHARREN EGOITZAKO BEZEROEN ESKU HARTZE INTEGRALA ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Zaharren Egoitzako bezeroen esku hartze integrala zerbitzuaren esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko irailaren 29an, Zaharren Egoitzako bezeroen esku hartze integrala zerbitzua kontratatzeko publikidadezko prozedura negoziatu bidezko esleipen espedienteari hasiera emotea onartu zan.

Bigarrena: Bizitzen Fundazioa izan da proposamena aurkeztu dauan bakarra, 77.487,00 euroko proposamena egin daularik.

Hirugarrena: Dokumentazio guztia zuzen dagoela ikusita, eta Zuzendariaren baiezko txostenagaz, 2017ko martxoaren 9an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaiak Zaharren Egoitzako bezeroen esku hartze integrala zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea proposatu dau 77.487,00 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Bizitzen Fundazioari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau.

Argudioak

Espedientea behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Zaharren Egoitzako bezeroen esku hartze integrala zerbitzua Bizitzen Fundazioari esleitzea 77.487,00 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2017ko apirilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra.

